



JARDUERA MEMORIA EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

2022



Aurkibidea

SARRERA	3
1.ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA	4
2. ARDATZA: GEOTURISMOA	11
3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA	19
4.ARDATZA: GEOGARAPEN. Komunikazioa eta gestioa	21
5.ARDATZA: BERTAKO GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA	29

SARRERA

Geoparkearen ildo estrategikoak urtez urte mantentzen dira, Plan Estrategikoak ezartzen dituen ardatzetan lan eginez:

- Zientzia, kultura eta hezkuntza
- Geoturismoa
- Lurraldea eta kontserbazioa
- Komunikazioa eta kudeaketa
- Tokiko garapena eta iraunkortasuna

Ikerketa eta dibulgazioa sustatzea funtsezko lan-ildo da, eta ikusgarritasun handia ematen digu esparru zientifikoan. 2022an bereizgarri izan den ekitaldietako bat THE FIRST 100 - IUGS GEOLOGICAL HERITAGE SITES proiektua izan da. IUGS-en ondare geologikoaren lehen 100 interesguneen aurkezpena Geoparkean egin zen, hiru eguneko kongresu batean. Ekitaldi honek gure lurraldea mundu osoan kokatu zuen.

Historiaurreko ondarearen ikerketari eta dibulgazioari dagokionez, HAB (Historia Aurreko Bailara) proiektua nabarmendu behar da. 2022an, ibilbidearen lehen fasea exekutatzen hasi da, edukiak eta interpretazio-euskarriak gauzatu.

Ingurumen-hezkuntzan lanean jarraitu dugu, bai hezkuntza arautuaren esparruan, Geoeskolen proposamenarekin, bai herritarrei zuzendutako jarduerekin. Azpimarratu beharreko jardueretako bat, auzolanean egindako itsaslabarren garbiketa izan da, Geoparkeen Europako Astearen barruan antolatua, eta 100 boluntariok baino gehiagok parte hartu zuten.

Plan Estrategikoaren eta Marketin Plan berriaren eguneraketa aurten egin da, eta 2023tik aurrera jarriko da martxan.

Jarduera turistikoari dagokionez, Geoparkea ekoturismoaren esparruan sustatzen jarraitu dugu. Bisita gidatuen programak normaltasunez funtzionatu du, aurreko urteetako murrizketarik gabe (edukiera mugatuak, maskara nahitaez erabili beharra...). Gainera, atzerriko bisitaria berreskuratu da.

2022. urtea errebalida urtea izan da Unescoren aldetik. Unesco geoparke guztiek errebalida bat igaro behar dute lau urtean behin, Geoparkeen Munduko sarean jarraitzeko. Euskal Kostaldeko Geoparkeak hirugarren aldiz pasatzen du izapide hori, 2010ean sartu baitzen sarera. Ebaluazioaren emaitza positiboa izan da, eta, beraz, UNESCOren Geoparke izaten jarraituko dugu beste lau urtez.

1.ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Lurraren Zientzien eta natura eta kultura-ondarearen ikerketarekin eta gizarteratzearekin lotutako helburuei erantzun nahi die ardatz estrategiko honek.

Ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoan, itsas ondarean eta kultura-ondare ukiezinean jartzen du arreta. Ardatz horretan kokatzen da, halaber, ingurumen-hezkuntzako eskaintza koordinatua garatzeko helburua, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat publikorentzako interesgune bihurtu dadin, batez ere eskola-eremuan.

1.1 - GEOLOGIA ETA LURREN ZIENTZIEN IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Ikerketa proiektuak**

Geoparkeak urtero ikerketa sustatzen duen dirulaguntzak kaleratzen ditu. Helburua ikerketa proiektu txikiak martxan jartzea da, ezagutza sortu eta Geoparkearen diskurtsoa ezagutza berriekin elikatzeko.

2021eko azaroan, 2022an garatu behar diren proiektuen dirulaguntza publikatu zen. Proposamenak baloratu eta gero hurrengo hauek aukeratu ziren:

- “Diversidad faunística en los ríos del Geoparque: efecto del aislamiento fluvial” Aitor Larrañaga UPV/EHU
- “Konkrezioak Deba eta Mutrikuko Flysch Beltza Taldean: tipología, eraketa-mekanismoak eta kontrolak” Luis Miguel Agirrezabala UPV/EHU.

Bi proiektuak bi urterako aurreikusita daude eta 2023an bukatuko dira.

- **Konferentziak**



2022an Geoparkeak antolatu duen ekitaldirik garrantzitsuena [THE FIRST 100 - IUGS GEOLOGICAL HERITAGE SITES](#) izan da.

IUGSen ondare geologikoko lehen 100 lekuen (The First 100 IUGS Geological Heritage Sites) aurkezpen ekitaldia Geoparkean egin zen urrian. Ia 40 herrialdetako 200 adituk baino gehiagok eta nazioarteko hamar erakundek, Lurraren Zientzietako hainbat diziplinatakoak parte hartu dute kokaleku horien guztien hautaketan. 56 herrialdetako 181 leku hautagai proposatu ziren, eta nazioarteko 33 adituk ebaluatu zituzten. Lankidetzeta-prozesu konplexu horren emaitza IUGSko ondare geologikoko lehen 100 lekuen zerrenda da.

Mundu osoko 150 pertsona etorri ziren Euskal Kostaldeko Geoparkera urriaren 25etik 28ra antolatutako ekitaldira. Tartean 42 lurralde ezberdinetako ordezkariak eta nazioarteko erakunde geologiko nagusien ordezkariak. Ekitaldiko programa [hemen](#).

The First 100 ekitaldiaren ondorio nagusietako bat **Zumaia**ko **Adierazpena** izan da. Adierazpen hori nazioarteko erakunde geologiko nagusiek sinatu dute eta geologia zientzien aldeko adierazpen nagusia bilakatu da.

- [Zumaia Declaration](#)
- [Argazkia eta bideoak](#)

Kongresuarekin batera, Zumaia

ko Oxford aretoan erakusketa bat ipini zen eta bi astez egon zen ikusgai. Helburua izan zen First 100 proiektua herritarrei helaraztea eta zumaia

rek ekitaldiaren garrantziaz kontzientziaztea.



- **Formakuntza eta dibulgazioa**

Argitalpenak:

- *“The First 100 IUGS Geological Sites” Hilario A. et. Al.*
- *“Arte en la oscuridad”. KARST en los geoparques españoles.* Asier Hilario.

Geoparkera erakarri eta egin diren ekimenak:

- EHU-ko ikasleak 4 aldiz izan ditugu Geoparkean. Geoparkearen kudeaketa orokorra eta bereziki Algorri ibilbidearen azpiegitura ikustera.
- Plus 55 taldearentzako Nautilusera bi irteera.
- Iridium arte proiektuaren parte hartzea ([ikusi albistea](#)).

Geoparketik kanpo egin diren hitzaldiak eta partaidetzak:

- Euskal Herriko geologiaren inguruko 6 hitzaldi Donostiako Aiete kultur etxea.
- Real Academia de las Cienciasek antolatuta: “Patrimonio geológico y geoparques” hitzaldia.
- The First 100 aurkezpena, Montañas de Courel Geoparkean SGE-ko Comisión de Patrimonio Geológico-ko bileran.
- UTAD Unibertsitateak antolatutako UNESCO katedra barruan “Geoheritage and UGGp” hitzaldia
- UNESKOK antolatutako Intensive Course on UNESCO Global geoparks ikastaroan “Geoheritage and Geotourism” hitzaldia.
- Granadako Geoparkeak antolatutako jardunaldietan “Memoria de la Tierra” eta “Geoparkea” hitzaldiak.
- Subbeticako I. Ekoturismo Kongresuan, Euskal Kostaldeko Geoparkeari buruzko hitzaldia.

1.2 - HISTORIAURREKO ONDAREAREN IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

Lan ildo honetan egin den ekarpenik handiena, HAB proiektua izan da. Hurrengo urteetan, Deban garatuko den proiektu zabala da, Historiaurreko bailara balioan ipintzea helburu duena. 2022an HAB ibilbidea definitu da eta urtea bukatu aurretik exekuzioa hasiko da: edukiak, interpretazio euskarriak, irudia, etab.

Bitartean, hurrengo fasetan ere aurrera pausoak eman dira, Ermittiako Plan zuzentzailearen garapena eta Ermittia eta Praileaitz kobetako ikerketak, besteak beste.

Europako Ondarearen jardunaldien barruan [HAB proiektuaren ibilbidea aurkeztu zen](#) azaroan Deban eta bertan, Aranzadi eta EHUKo arkeologoen eta paleontologoen hartu zuten parte.



1.3 - INGURUMEN HEZIKETA

Heziketa da Geoparkearen tresnarik garrantzitsuen, gizarte osoari zuzendutako heziketa, baina bereziki, gazteei zuzendutakoa. Horretarako, hainbat ekimen burutzen dira, zuzenean Geoparkeak antolatuta edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen *GNatZinema* zirkuituan bi saio eskaini genituen Geoparkean. Mutrikun, *La vida secreta de los árboles* filmaren emanaldia izan zen eta Zumaian, *Urak aske* filmarena.
- Aurten ere, uztailean, Itsas Gelaren *Zero zabor uretan* kanpainaren baitan, Mater itsasontzia Mutrikuko portura etorri da.
- Nacho Dean abenturazaleak sustatutako *La España azul* izeneko kanpainaren baitan, eta AZTIrekin elkarlanean, [hondakin bilketa bat egin da](#) Sakonetako hondartzan. Bilketa urriaren 1ean egin zen eta 30 lagunek hartu zuten parte. Datuak biltzeko, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren *Itsas Estrategiak* izeneko ekimenaren Herritarren Zientzia Programaren egoera-orria erabili da.



- Aurten ere *BIOTOP* izeneko bi biodibertsitate topaketa egin dira. [Lehenengoa](#), maiatzean, Itziariko Elorriaga auzoko ekosistemak ezagutzeko, hegaztiak eta landaredia hain zuzen ere. [Bigarrena](#), Mikologia irteera bat izan da eta Zumaiko Santiago auzoko onddoak izan ditu xede. Horrelako ekimenak Ornitho eta Natusfera bezalako plataformak ezagutarazteko baliatu ditugu, herritarrek naturaren inguruko datuak biltzeko moduak ezagutu ditzaten.



- Otsailaren hasieran hezeguneen nazioarteko eguna ospatu ohi da eta aurten, Deban, [hegaztiak behatzen ikasteko irteera bat programatu da](#). Irteera Debako paduretan egin da eta iaz bertan behera geratu zena da.
- Mutrikun eta Zumaian, *Hurbil dituzu, behatu baino ez duzu* goiburu duen [Geoparkeko hegaztien argazkien erakusketa](#) egin da. Irudiak Oliver Pérez eta Imanol Manterola argazkilariek ateratakoak dira eta behin Geoparkean erakutsi eta gero, kanpoko beste kultureguneetara zabaldu nahi da.



- **Geoeskolak**

Aurreko urtean bezala, *Geoeskolak* programa didaktikoaren jarraipena eta koordinazioa egin da. Aurreikusitako bezala, [500 ikasle inguru hartu ditu programak](#) eta 2022-23 ikasturterako aurreikuspenak antzekoak dira.

Ingurugelak hala aholkatuta, ikasturte berrirako arazo-egoera bana txertatu da orain arte eskaintzen diren proposamen didaktikoetan. Egoera ekosozial zehatz baten proposamenaren bitartez, Geoeskolak programak inguruko arazoak eraman nahi ditu gelara. Hala, ekologiaren, ekonomiaren eta gizarte-ongizatearen elkarreaginak bistaratuko dira eta ikasleak etorkizuna aldatzeko lanean jarriko dira, parte hartzeko aukera emango zaie eta aldaketa eragiteko norberaren eta gizarte osoaren papera nabarmenduko da.

Bestalde, 2022ko urrian, estreinakoz, [Hazitik hezi jardueraren lehen saioa](#) egin da. Jardunaldian, Itziar-Debako Iturrietamendi inguruan, bertako zuhaitzen haziak bildu dituzte Itziarko Eskolako Lehen Hezkuntzako haurrek. Ekimena, Itziarko Eskolak, Lizarbe Guraso Elkarteak, Itziarko Auzo Udalak, Euskal Kostaldeko Geoparkeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urteotan izan duten lankidetzaren beste urrats bat da.



2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa bultzatzeko eta sustatzeko hainbat ekintza egin dira, betiere iraunkortasunaren eta ekoturismoaren ikuspegitik.

Geoparkea Basquetourrek bultzatutako Kode Etikoa programaren barruan dago. Aurten ere formazio ikastaroa egin da eta kodearekin daukagun konpromezua jasotzen duen txostena egin dugu. Txosten hori 2023an balioztatuko da.

Martxoan, GFAko Turismo Saileko kideen bisita izan genuen; Iker Goiria Zuzendaria eta saileko teknikariak gerturatu ziren Geoparkera. Hiru herrietan egon ginen Next Generation funtsetatik finantziatuko diren Jasangarritasun Planetara aurkeztuko diren proiektuak ikusten.



2.1 - PRODUKTUAK ETA BALIABIDEAK

Ekoturismoa da Geoparkearen garapen turistikoaren erreferentea. 2019az geroztik Geoparkea Ekoturismo Klubaren kide da, bere 19 entitate laguntzaileekin batera eta klubera sartu zen Euskadiko lehen jomuga turistikoa izan zen. 2021ean beste sei enpresa batu ziren klubera ebaluazioa gainditu ondoren.

2.2 - GEOTURISMO ESKAINTZA

- Irteera gidatuen programa

Geoparkeak bisita gidatuen programa zabala du eta urte osoan zehar eskaintzen dira egunero; aste santutik azaroko zubira bitartean eta asteburuetan neguko hilabeteetan.

Eduki geologiko, natural eta kulturala duten bisiten bidez, Geoparkeak aisialdiko programa bat gauzatzen du, ondarea zabaltzeko helburu argiarekin. 2022an 16 bisita mota ezberdin eskaini dira urtean 1500 bisitatik gora.

Bisita eta bisitari kopurua aurreko urteetan baino baxuagoa izan da, hala ere uda sasotik kanpo egon dira hazkundeak, maiatza eta urria esaterako, eta hori ona da turismoaren desestazionalizaziorako.

2021 oso urte ona izan zen irteera gidatuen partaide kopuruari begira, itxiera perimetralak lagunduta.

Hala ere pandemia aurreko datuak dira guretzat erreferentzia, 2019. urtea, hain zuzen ere.

Bisitari kopurua bisita gidatuetan

	2019	2020	2021	2022
Urtarrila	41	65	6	148
Otsaila	297	235	196	209
Martxoa	656	33	651	336
Apirila	1.575	-	1.745	959
Maiatza	647	-	309	780
Ekaina	1.662	594	1.179	954
Uztaila	3.433	3.616	4.021	3.243
Abuztua	7.081	6.052	7.773	5.555
Iraila	1.581	1.544	2.038	1.454
Urria	869	320	1.149	1.157
Azaroa	166	-	169	307
Abendua	293	87	148	320
TOTAL	18.301	12.546	19.384	15.422

Irteera gidatuetan parte hartzen dutenek, erreserba turismo bulegoan nahiz on line egin, asebetetze inkesta bat jasotzen dute emailaz: jasotako arreta, erreserba prozesua etab. ebaluatzeko. Tresna hau oso garrantzitsua da Geoparkearentzat, egiten diren hobekuntzak emaitza hauetan oinarritzen dira eta. 2022an 986 inkesta jaso dira eta batez besteko balorazioa 10etik 8.7koa da. Ondoen baloratuta dauden alorrak: jasotako arreta (9.4 puntu), erreserba prozesua (9.2 puntu) eta gidariaren azalpenak (8.9 puntu) izan dira.

Inkesten laburpena

Baloratutako alorrak	Balorazioa (1-10)
Iritzi orokorra	8.7
Erreserba prozesua	9.2
Gidariaren azalpenak	8.9
Prezioa	7.7
Medioen balorazioa	8.2
Jasotako arreta	9.4

- Hobekuntzak eta materialak**

2022an “Irteera Geologikoa” bisita gidatua hobetu dugu, inkesten asebetetze mailaren arabera. Berrikuntza moduan, udaberrian Nautilus Gela Didaktikoan umeentzako tailerrak egin ditugu bisita-pilotu gisa, ea heldutasun maila hartu eta urteko programan sartzeko gai garen.

Aurten ere [Gidariak Trebatzeko Ikastaroa antolatu dugu](#), gaur egun Geoparkean irteera gidatuak egiten dituzten pertsonentzat. Geologia, paisaiaren bilakaera eta klima aldaketa izan dira sakondu diren gaietako batzuk.



Bisita gidatuetan, itsasontzian erabiltzen den materiala ere berritzu da aurretan.

Geoparkea.eus web gunearen bitartez egiten dan erreserba prozesuan ere hobekuntzak egin dira, erabiltzaileari begira pausoak errazteko. Erabiltzaileak jasotzen dituen konfirmazio orria eta inkesta ere html-an diseinatu dira irudi aldetik hobetzeko. Erreserba prozesuan Bizuma gehitu da ordainketa aukera bezala oso arrakasta handiarekin, berehala hasi bait ginen Bizum bidezko ordainketak jasotzen.

Inkesta prozesua ere errazteko asmoz 10etik 5era murriztu da puntuaketa (lehen 1-10era ebaluatu behar zen), eta diseinu responsive-era egokitu dugu, gehiegi mugikor bidez erantzuten baitu inkesta.



← Geoparkea - Geoparkea ...
https://geoparkea.eus/checkout/...

Geoparkea  Euskal Kostaldea - Costa Vasca

Encuesta

LA RUTA DEL FLYSCH

Estimado visitante
Con objeto de mejorar las Visitas Guiadas, agradeceríamos cumplimentes la siguiente encuesta. ¡Gracias por tu colaboración

Marca del 1 (muy mal) al 5 (muy bien) el grado de satisfacción respecto a:

Valoración general de la visita
☆☆☆☆☆

Valoración de la reserva
☆☆☆☆☆

- **Talde bisitak eta bisitarien datuak interpretazio zentroetan**

Geoparkeak talde bisitak gestionatzen ditu Geoparkearen irudi zabalago bat eskaintzeko asmoarekin. Zerbitzu personalizatua eskaintzen du bisitarako eta ezagutzarako aukera berriak zabalduz, bereziki barnealdea sustatuz. Webguneke talde formularioaren bidez 168 eskaera jaso dira, iazko bikoitza baino gehiago. Bai eskolak eta bai aisialdiko taldeak pandemia aurreko ohituretara bueltatu direla igarri da.

Aurreko urteetako irizpideak mantenduz, eskolentzat diren irteerak Algorriko Interpretazio zentrorra berbidaltzen dira, aisialdiko talde irteerak berriz, entitate laguntzaileei bidaltzen zaizkie eta Geoparkeak zuzenean gestionatzen ditu talde espezializatuak eta lurraldea sakonean ezagutzeko edo gestio eredu ezagutzeko interes berezia dutenak.

Interpretazio zentroen bisitari kopurua

	2019	2020	2021	2022
Algorri	19.904	5.033	11.552	14.130
Nautilus	1.761	964	1.918	1.991

Algorriko Zentroak eskolei zuzendutako aktibitate normala berreskuratu du nahiz eta bisitari kopuruan ez iritsi 2019ko datuetara. Hala ere, 2023ra begira eskaera asko jaso ditu eta badirudi errekupeazio osoaren urtea izango dela.

Nautilus Interpretazio zentroak berriz, pandemia aurreko datuak berreskuratu ditu eta ez eskolekin baizik eta irteera gidatuen programako partaideekin.

- **Geoibilbideen deskargak eta San Telmo-Algorri urratsen kontagailuaren datuak**

- San Telmo-Algorri urratsen kontagailuaren datuak

	2019	2020	2021	2022
PAUSUAK GUZTIRA	220.391	158.852	224.171	205.283


- Geoibilbideen deskarga kopurua webgunetik, hizkuntza desberdinetan

	2021	2022
Euskeraz	208	138
Gazteleraz	5646	3730
Inglesez	103	1169
Frantsezez	60	400
DESKARGAK GUZTIRA	6017	5437

2.3 – PROMOZIOA ETA MERKATURATZEA

Gipuzkoa Turismo eta Basquetourrekin elkarlanean egiten ditugu ekintza gehienak baina zuzenean Geoparkeak ere egin ditu ekintza txiki batzuk.

Feria nagusietan Geoparkeko materiala egon da bai Basquetourrek eta bai Aldundiak ordezkaturakoetan. Aurten, pandemiako bi urteak eta gero ez dugu Fiturren Geoparkeen standik izan baina Bilboko [Basque Festen berriz stand propioa izan dugu](#), bi urteko geldiadia eta gero.



Maiatzean bidai agentziei zuzendutako natura turismoko learning baten parte hartu genuen, Basquetour eta CEAVEk, bidai agentzien konfederazioak, antolatuta. Basquetourrek natura turismoaren eskaintza aurkeztu zuen eta Geoparkeak bere ekoturismoko eskaintza.

Promoziorako materiala eguneratuta egon da bai irudi folleto orokorra eta bai irteera gidatuen desplegablea, biak berreditatu dira aurten (ikusi [hemen](#)).

Uda denboraldiaren hasieran, bisita gidatuen liburuxken bidalketa bat egin zen Euskadiko Turismo bulego nagusietara eta Donostia, Bilbo eta Gasteizko hotel nagusietara. Bertako hotelei ere gogorarazten zaie material guztia Deba, Mutriku eta Zumaiako turismo bulegoetan dagoela eskuragarri.

Ekoturismo klubaren bitartez nazioarteko hainbat promozio ekimen egin dira: feriak, aldizkariak, produktuen merkaturatzea, etab.

- Martxoan VI Ekoturismo Foroan egon ginen Gasteizen eta Ekoturismo Sareko bileretan ere hartu dugu parte.
- Maiatzean, Urdaibairekin batera, [press trip bat antolatu genuen](#) nazioareko 5 kazetarirekin, Turespaña, Ekoturismo klubak eta Basquetourrek lagunduta. 4 egunetan zehar gure ondare natural eta kulturala erakutsi genien eta horren berri eman zuten beraien medioetan.



- Mad Bird Fair, Naturcyl edo Nature Watch bezelako ekoturismo ferietan ere Geoparkearen promozioa egiten da, Espainiako ekoturismo helmugun barruan.
- Marketing digitaleko ekintzak ere burutzen dira eta soyecoturista.com web gunearen bitartez egiten da ekoturismo promoziorik handiena.
- Aurten ihesaldien katalogoa, [Catálogo de Escapadas 2023](#) kaleratu da, ekaina eta abenduaren artean egiteko ihesaldiak proposatuz. Geoparkeak bi proposamen egin ditu, bat irailean eta beste bat urrian egiteko, alojamendua eta bertako gidari batekin irteerak barne.



Geoparkeko irteera gidatuen programa ofiziala merkaturatzeko betiko bideak jarraitu dira berrikuntza batekin, bisitak salmentarako plataformen bitartez eskaintzen eta promozionatzen hasi gara: turismovasco.com, Civitatis eta Wild Sea Europe bezalako plataformetan, gure salmenta sarea zabaltzeko asmoarekin.

Euskadi Turismo webgunean Experiencia Top bezala jarraitzen dugu baina ez da agentzia baten bitartez salmenta egin lehen egiten zen bezala baizik eta gure webgunera link batekin, erreserba zuzenak egiteko. Beraz aurten ere ezin izan dugu egin webgune honetatik iristen zaigun erosketen trafikoaren jarraipena.

Saretour Conecta networking-eko bileretan parte hartu genuen apirilaren 6 eta 7an. Hainbat rezeptibo agentzia eta hotelekin egin ziren topaketak gure eskaintza geoturistikoa erakustarazteko eta lankidetzak aukerak aztertzeko.

Gipuzkoako Hub Turismo eta Saretourreko kideen bidez, hainbat formakuntza saio ere egin ditugu: *taller WhatsApp Business, Cyberseguridad: aproximación a la seguridad en el sector del turismo, Curso práctico: Herramienta para el Análisis y Visualización de Datos relacionados con el Turismo, Sistema de Inteligencia Turística de Euskadi y Comunicación con el turista digital*

Azaroan GFak antolatutako Turismoaren Erronkak Gipuzkoan jardunaldian izan ginen Erreterian. Argazki album bat ere enkargatu diogu argazkilari bati, webgunea eta promoziorako beste euskarri batzuetako argazkiak berrizteko, bai Geoparkeak zuzenean egiten dituenak baita entitate kolaboratzaileentzat ere.

Urtean zehar hainbat bisita interesgarri jaso ditugu Geoparkean eta gure irteera gidatu programa eskaini diegu:

- EJKo Turismo Sailburua eta Turismoko estatu-idazkaria
- Euskarabenturako gazte taldea
- Animadeba jaialdiko VIP gonbidatuak
- Unescorekin lotutako eskolak, Zumaiena eskola eta Zumaiako Udalaren eskutik.

3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1 - IBILBIDEAK ETA BIDEEN DISEINUA

2022an Georuta berrien ibilbide eta edukiak definitu ditugu. Turismo Jasangarritasun Plana ebazten denean ipiniko dira martxan, 2023an.

3.2 - INTERPRETAZIOAKO AZPIEGITURAK

Interpretaziorako azpiegiturek garrantzitsuenak HAB proiektuarekin lotuta dagoena da. 2023an zehar Debako portutik Sasiolako miradorera doan ibilbidea interpretatuko da; panel, erreplika, behatoki eta bestelako azpiegituren bitartez.

NEXT funtsen bitartez finantziatuko diren Turismo Jasangarritasun Planera aurkeztu diren ekimen nagusiak azpiegiturek dituzte helburu. Ebazpena iristen denean planifikatuko da azpiegituren bakoitza baina ez da espero 2024a baino lehenago hastea.

3.4 - NATURA INGURUNEA ETA ONDAREAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA

- *Septariak, ondare higigarri gisa kontserbatzeko proiektua* prestatu genuen Debako Udalak aurkeztu zezan, ebazpen positiboaren ondoren proiektua martxan ipini da eta lehenengo pausoa bilduma udalaren eskutara pasatzea da. 2023ra begira nodulo elkar trukaketa bat antolatuko da bestelako noduloak dituzten lurralde batzuekin.
- Biotopoko iknofosilen azterketa eta biltze kanpaina egin da. Bildu diren ale guztien artean Paleodiktio iknofosilaren ale ikusgarri bat azpimarratu behar da eta Algorri interpretazio zentroan jarri da ikusgai.
- Deba-Zumaia arteko Biotopo babestuaren sarbideak antolatzeko txosten teknikoa eta proposamenak egin dira, diagnosi lanak egin ondoren. Itziar, Deba eta Zumaia udalak, GFA, Debemen, Urkome eta Geoparkeak osatutako mahai teknikoaren ondorioz egindako lana da hau.

Honen harira, Zumaia udalak, GFA eta Geoparkearekin batera, Algorriko ibilbidearen karga ahalmena aztertu du, landa lana, inkesta eta metodologia jakin baten bitartez.

- 2018. urtean hasitako ildotik jarraituz, Biotopoko basoak lehengoratzeko lanak osatzeko lanak egin ditugu. [Aurten zuhaitz landaketa Itziarko Arantzamendi inguruan](#) eta adin ezberdineko 15 boluntarioekin egin da. Aukeratutako tokiak Gipuzkoako Foru Aldundian eskainitako lursailak dira eta bertan 450 landare aldatu dira: arteak, gurbitzak, haritz kandudunak, elorri zuriak, hurritzak eta urkiak.



- Bestalde, Deba eta Zumaia arteko Biotopoen Debako Udalak dituen lursailetan naturaren lehengoratzeko lanen bigarren faseari eman zaio. Fase honetan, Arranamendi inguruan espezie inbaditzaileak kentzeko lanen jarraipena egin da, 230 zuhaitz sartu dira eta udan haiek ureztatzeko lanak egin dira. Sartutako zuhaitzak sagarrondoak, hurritzak, elorri zuriak eta haritz kandudunak izan dira.



4.ARDATZA: GEOGARAPEN. Komunikazioa eta gestioa

4.1 - PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA OROKORRA

2023rako komunikazio alorrak hazkunde bat izango duela aurreikusten da, bereziki barne komunikazioan. Geoparkezaleen proiektua gehiago garatuko da eta zati handi bat barne komunikazioan egongo da. Horregatik, komunikazio arduradun bat kontratatzeke lan eskaintza kaleratu da eta kanpo kontratazio bat izatetik staff izatera pasatuko da lanpostu hau.

2022ean lan-taldea mantendu da, bai staff lanpostuak, baita lankidetzak ere.

Geogarapeneko lantaldea: langile propioak

- **Gerentziak** bere gain hartu ditu Geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sarean (EGN/GGN) eta CNEGen (Geoparkeen Espainiako Batzordea) ordezkagarritasuneko funtzioak. 2023an gainera, Ekoturismo klubeko zuzendaritza batzordeko kide izango da eta Espainiako Foroko koordinazio taldeko idazkari hurrengo bi urteetarako.
- **Bisita gidatuen dinamizatzailea** bisitak kudeatzeaz arduratu da, eta, orohar turismo arloko gestio orokorra bere gain hartu du.

Kanpo asistentziak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitu du, EGN eta GGNren ordezkari izatearekin batera, Deba – Zumaia Biotopoaren zuzendari zientifikoa da. Horrez gain, IUGSko (Unión Internacional de Geociencias) ondare geologikoaren batzordearen koordinatzailea, International Geoscience Programeko (ÍGCP) batzorde zientifikoko kidea, EGNko, Advisory Committeeko kidea, GGNko Executive Committeeko kidea eta UNESCO Global Geopark Council IUGSeko ordezkaria ere bada.
- Komunikazioari, prentsa-oharrak egiteari, webgunea eguneratzeari, Newsletterri eta abarri buruzko aholkularitza emateko **komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea**. Aurreko urteetan bezala mantendu da.
- **Community manager** (sare sozialen kudeatzailea) @Geoparkea estrategia Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan. Hau ere aurreko urteetako mailetan mantendu da.

- **Ingurumena eta iraunkortasun koordinatzailea**, Naturagune Babestuetako (ENP) jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko.
- **Kontabilitate- eta lege-aholkularitza** erakundearen eguneroko kudeaketarako.

- **Plan estrategikoa eta Marketin Plana:**

Aurreko Plan estrategikoa, 2016-2020 epekoa, gaindituta zegoen pandemiako bi urteak igaro eta gero. Horregatik, 2022an strategiaren eguneraketa eta marketin plan berri bat egin dugu.

Gura Marketin enpresak egin du lana. Aurreko epealdiko ekintzen betetze maila balorazioa egin dugu eta ardatzak, lan ildoak eta ekintzak eguneratu egin dira. Marketin planaren diagnosian atera diren gaiak erantzuten die; inkesta, bilera eta kontraste saioen bitartez egin da partaidetza prozesua.

Plan horrek, Geoparkearen posizionamendua, irudia, publikoak etab. ezartzen ditu. 2026ra bitartean hau izango da marketineko norabidea markatzen duen plana.

- **Geogarapeneko zuzendaritza batzorde eta Asanblada indartzea**

2022an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin daukagun hitzarmena bukatu egin da. Aurreko tartean legealdi osoak hartzen zituen hitzarmenak, azkenengo honek ordea bi urte bakarrik iraun du. 2023 eta 2024ra begira hitzarmena luzatzea da helburua.

- **Euskadiko Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Plana**

Eusko Jaurlaritzak Turismoko bigarren Lurralde Plana onartu da eta horren bidez, Euskal Kostaldeko Geoparkeak 5,2 milioi euro jasoko ditu 2023an, Next-Generation EB Europako Funtsen bidez. Proiektuaren helburua da turismoaren balio-katea modernizatzea, eskaintza eta zerbitzu turistikoen publikoak hobetuta, hala nola turismo bulegoak, interpretazio zentroak, produktu turistikoen konektibitatea eta MICE eskaintza.

Plan osoan funtsezkoa da jarduera turistikoa sortzen dituen eraginak murriztea, eta, era berean, mugikortasuna hobetzeko, interpretatutako geobilbide sarea zabaltzeko eta enpresen ekoturismo eskaintza handitzeko estrategiak planteatzen dira. Geoparkearen proiektua Debegesaren, Debarreneko Garapen Agentzia, bidez aurkeztu zen.

4.2 - EGN, GGN Y UNESCO-REKIN HARREMANAK

Geoparkearen nazioarteko ordezkaritza eta ikusgarritasuna oso garrantzitsua da Geoparkearentzat eta Euskadi-Basque Country markarentzat.

2022an [Unescoren ebaluazioa](#) izan dugu. Ekainaren 13tik 17ra izan ziren Geoparkea ikuskatzen. Iraileko konferentzian jakin genuen emaitza, [ebaluazioa gainditu](#) eta beste lau urtez Unescoren Geoparke izaten jarraitzeko aukera luzatu dugu.



EGNko eta GGNko topaketak aurten, Honsdrug (Holanda) eta Terra Vita (Alemania) UGG artean antolatu da. Udazkeneko bilera eta konferentzia Sesia Val Grande UGGen (Italian) egin da berriz.



Bi sareek erabiltzen dituzten informazio-euskarrietan gure ekarpena egin dugu, besteak beste:

- **EGN Newsletter** “Basque Coast UNESCO Global Geopark (Spain): The First 100 IUGS Global Geosites”.
- **EGN Magazine** “The Basque Coast Geopark hosted the presentation of The First 100 IUGS Geological Heritage Sites”.
- **GGN Newsletter** “Tree planting in the Basque Coast UNESCO Global Geopark”.
- **GGN Geoparks & Oceans** “More than 100 volunteers participated in litter picking organized by the Basque Coast UNESCO Global Geopark”.

UNESCOK, Afrikan geoparkeak sustatzeko **aditu taldean** parte hartu dugu.

UNESCOn Ebaluazio Misiok, aurten ere Geoparkearen ordezkariak egin dituzte, Leire Barriuso, Imbabura (Ekuador) Geoparkea ebaluatzen egon da eta Asier Hilario, Mexikoko Mixteca Altan.

- [Espainiako Geoparkeen foroa](#)

Urtean zehar oso aktiboa da Foroa, hainbat online bilera egiten dira promozio eta amankomuneko proiektu berriak sortzeko. Aurten, Leire Barriuso ordezkaria, foroko idazkari izendatua izan da.

Urteko Geoparkeen Jardunaldi Irekia Origen UGGan (Lleida) egin zen. Euskal Kostaldeko Geoparketik ordezkaritza zabal bat gerturatu zan, bertatik bertara Geoparkeen inguruko gaiak ezagutzeko. Geoparkeen arteko elkarlanak lehentasun bat izaten jarraitzen du.

CNEG, Espainiako Geoparkeen Batzordean partaidetza, bereziki hautagaitza berriei aholkularitza emateko.

VII
JORNADAS ABIERTAS
DEL FORO ESPAÑOL
DE GEOPARQUES



- [IUGS. International Commission on Geoheritage](#)

Zalantzarik gabe urtean izan dugun ekitaldirik garrantzitsuena, nazioartean izan duen oihartzunarengatik eta egindako lanaren kalitateagatik.

IGCP. INTERNATIONAL GEOSCIENCE PROGRAM

- IUGS eta UNESCOren International Geoscience Program-eko batzar zientifikoaren kide bezala 2 proiektu baloratu dira 2022 deialdirako
- IGCP 731: IUGS Geological Heritage Sites Proiektu handiaren zuzendaritza orokorra. Proiektu honetan munduko 40 zientzialari eta 20 lurralde eta Geoparke UNESCO daude murgildurik. Proiektuaren helburu nagusia nazioartean interesgune geológico altuko lekuak izendatzea da. Lehen pausuak eman eta gero lehen 100 IUGS Global Geosites” .

Beste lankidetzatza proiektu batzuk:

- Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroaren Eraldaketa Energetiko-klimatikoaren Guneak Ekimenaren partaide da Geoparkea.
- EHUS sareko kide eta RCE Basque Country (Centro Regional para la Educación Sostenible) proiektuko kidea.

4.3 - KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

Geoparkearen lehentasunezko gai bat da komunikazioa, on eta off line. Prentsa oharrak, medioetan agerraldiak, newsletter elektronikoak, webguneko albisteak, sare sozialak gestionatzen ditu Geoparkeak, antolatzen diren ekitaldiei ahal den etekin handiena ateratzeko.

ON-LINE

Urteroko eguneraketak egin dira erreserba sisteman. Iaz Mondragon Unibertsitateko lankideek egin zuten web gunearen erabilera diagnosian oinarrituta aurrera pauso bat eman da gure erabiltzaileen jarraipenean eta e-commerce irizpideetara oinarritu da web gunea, gure bezeroen portaera hobeto ezagutzeko eta modu segmentatu batetan haiei zuzentzeko. Udan egin zen migrazioa, beraz oraindik ez dugu denbora gehiegiko datuak konparatzerik baña adierazleak definituta daude.

- 9 newsletter bidali zaizkie harpidedunei. Adibide batzuk: [10 urte](#), udaberriko [Biotop](#), [Hegaztiak behatzeko tailerra](#), udazkeneko [Biotop](#).
- Webgunean 29 [albiste](#) kaleratu dira.
- Sare sozialetan gure presentzia indartzen jarraitzen dugu, eta erabiltzen ditugun hiru sareetako jarraitzaile kopurua modu organikoan igo da:
 - Twitter: % 12ko igoera
 - Instagram: % 12ko igoera
 - Facebook: % 7ko igoera

OFF LINE

- 20 prentsa ohar.
- 11 irrati elkarrizketa, besteak beste, Onda Vascan, Onda Ceron, La Ser-en, Radio Euskadin eta Euskadi Irratian.
- 5 agerraldi telebistan, besteak beste:
 - EITB Albisteak (euskera eta gazteleraz)
 - Hitzokei, EITB
 - TBPI Frantziako telebista
 - Edozein Herriko, EITB
 - Nos echamos a la calle, EITB
 - "Ahoz aho" de ETB1, hamabostaldiko kolaborazioa
- Goiena Komunikazio Taldearekin [erreportaje](#) bat grabatu dugu Deba ibaiaren bokalean dauden ekosistemen garrantziaz hitz egiteko. Elkarrizketa, besteak beste, [artikulu bat](#) idazteko erabili dute.

Baleike Zumaiaiko herri aldizkarian hileroko ekarpena Ingurumen eta Zientziaren atalean. Aurten, honako artikulua hauek idatzi dira eta [edizio digitalean](#) topatu daitezke:

- Babesgunetako habitatak: lurraldeko tapiz preziatuenak (I)
- Mamua haragitu da
- Itsas bitxien aterpeak
- ZUMAIAKO ADIERAZPENA. Ondare geologikoa garapen baliabide iraunkorraren aldeko apustua

Debaberri Debako aldizkarian ere hiru kolaborazio egin dira, eta [hemen](#) topatu daitezke:

- Zaborrak biltzeko jardunaldia Sakonetako hondartzan, itsas inguruneko inpaktua ikertzen laguntzeko.
- Euskal Kostaldeko Geoparkeak ebaluazio misioa jaso du UNESCOren Munduko Geoparke izendapena berresteko.
- Prehistoriaren bailara: Geoparkearen altxor ezkutua.

KOMUNIKAZIO KANPAINAK

- Ekoturismoaren aldeko sentsibilizazio kanpaina: Geoparkearen entitate laguntzaileei bideo laburrak grabatu dizkiegu ekoturismoaren alde egiten dutena nabarmenduz, izan ere, entitate hauek Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparkearekiko zein jasangarritasunarekiko konpromiso irmoa berretsi dute, Turismo Jasangarriaren Europako Kartaren ildotik.
- Bisita gidatuak promozionatzeko kanpainak egin ditugu ondorengoko hedabideetan:
 - Radio Vitorian iragarkia
 - La Ser Pamplonan iragarkia
 - SudOuest egunkarian iragarkiak paperean eta bannerrak online
 - FICOPA kanpoko pantaila haundian iragarki bat ipini dugu
- Beste urte batez, BERRIALagun akordioa berritu dugu, euskal hedabideekiko Geoparkearen konpromisoa berresteko.
- Era berean, argazkiak berritu ditugu promozio euskarrietan erabiltzeko.


Kirol ekitaldien bitarteko promozioa

Gipuzkoa Basket taldearen irudia Geoparkeko Flyscha da, denboraldiko aurkezpena Deban egin zuten aurtengo ekipamendua erakusteko.



Beste urte batzuetan bezala hurrengo hauek ere izan dira:

- Flysch trail
- Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia
- Lasturko mendi martxa, Geoparkeko Karstaren bira



Patrocinios

5.ARDATZA: BERTAKO GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

5.1 - GEOPARKEZALEAK

Geoeskolak eta turismoko entitate laguntzaileak dira momentuz Geoparkezale aurreratuenak. Entitate kolaboratzaileek %10eko deskontua izan dute beraien bezeroentzat irteera gidatuak erreserbatzeko orduan.

2022an entitate kolaboratzaileen bideo laburrak egin dira beraien euskarrietan erabili ahal izateko. Webgunea, sare sozialetan, etb. Geoparkeak ere bere sareetan partekatu ditu. Bideo horiek enpresa bakoitzak eskaintzen duen ekoturismo eskaintza ageri da [Youtube kanalean](#) eta [Entitate Kolaboratzaileen webguneko atalean](#) ikus daitezke.



Gainera, argazki bilduma repositorio bat egin da entitate hauen erabilerarako.

Urteroko jarraipen bilera egin zen azaroan beste gai batzuen artean Marketin plan berria aurkeztu eta 2023ko ekintzak partekatu eta adosteko.



5.2. - EUROPAKO GEOPARKEEN ASTEA

Europako Geoparkeen Astearen **13. edizioa** egingo da Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkean. Ekimen hau Europan egun dauden **94 geoparkeetan burutuko da aldi berean**, lurralde bakoitzeko ondare geologikoa, naturala eta kulturala herritarrei gerturatzeko helburuarekin.

Maiatzaren 19an hasi eta ekainaren 2ra bitartean, [denetariko ekitaldiak](#) egin ziren Mutrikun, Deban eta Zumaian, Geoparkea osatzen duten hiru herrietan.




- GNAT ZINEMA, II. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEN ZINE ERAKUSTALDIA

GFAarekin batera GNATZinema zirkuitoan [bi zinema saio eskaini dira](#) Mutrikun, *La vida secreta de los árboles* eta Zumaian, *Urak aske*.



- [“BIOTOP” BIODIBERTSITATE TOPAKETA](#)

Euskal Kostaldeko Geoparkeak BIOTOP izeneko biodibertsitate topaketa antolatu du Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin. BIOTOP topaketa Geoparkeko biodibertsitatea ezagutzeko du helburu, kasu honetan, Elorriaga auzoko hegaztiak eta flora ezagutzeko aukera emango digu.



- [KARSTEKO ZAPOREAK IRTEERA GIDATUA](#): Karsteko Zaporeak doako bisita gidatua antolatu zen, Goienetxe euskal baserri tipikoa bisitatuko eta gazta egiteko prozesua ezagutuko genuen.

- [“SORBELTZAK: BIZITZA AIREAN” SOLASALDIA](#): Sorbeltzak: bizitza airean hitzaldia egin zuen Eneko Azkue ornitologoak. Helburua hegazti hauen inguruko informazioa ematea eta habi-kutzak nolakoak diren ezagutzeko zen.

- [GORDAILURA, GIPUZKOAKO ONDARE BILDUMEN ZENTROA, BISITA GIDATUA](#): Gordailura, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa, bisita gidatua antolatu genuen. Gordailuan zaintzen dira Gipuzkoako material arkeologikoak eta paleontologikoak, gure lurraldearen historia ezagutzeko balio duten pieza interesgarriak.

Indusketetan, prospekzio arkeologikoetan edota ezustean agertutako piezak dira Gordailuan daudenak: lehenengo gizakien aztarnak, adibidez Lezetxikiko humeroa, Ekaingo zein

Praileaitzleko arte higigarri paleolitikoa etab. Bestalde, ikerketa paleontologikoetatik jaso diren aztarnak ere daude bertan: hamaika hartzen aztarnak, hienak, eta Arrikutzen aurkitutako haitzuloetako lehoia ia osorik.

- FAMILIENTZAKO FOSILEN TAILERRA

Mutrikuko Nautilus gela didaktikoan, familientzako fosilen tailerra antolatu dugu. Jarduera honen helburua da Nautilus Gela Didaktikoan Mutrikuko flysch beltzean aurkitutako fosil erraldioen bilduma ezagutzea. Horretarako, familiek geologia tailer dibertigarri batean parte-hartuko dute eta eskuz egingo duten amonite bat eramango dute etxera.



- ITSASLABARREN GARBIKETA AUZOLANEAN

Labarretan pilatutako hondakinak eta plastikoak biltzeko garbiketa egin zen maiatzaren 29an, igandez, Deba-Zumaia Biotopoan, **Elorriaga inguruko labarretan** (Itziar-Deba).

32 zaku bete ziren guztira eta 100 pertsona inguruk hartu zuten parte. Herritarrak ingurune honek duen ingurumen balioaz jabetzea eta kontzientziario lan horretan auzolanaren bitartez partaide aktibo bihurtzea izan zuen helburu ekimenak.

Argazki galeria eta ekitaldiaren albistea [hemen](#).



- SOLASALDIA ITZURUN HONDARTZAKO TERRAZAN

Itsas hondakinen arazoa tratatu zen solasaldian: esperientziak, irtenbideak, elkarlanean aritzeko beharra etab. Ondorengoek parte hartu zuten:

- Mater Museoko Izaskun Suberbiola
- Aztiko Oihane Cabezas
- Surfriider Foundationeko Maria Ballesteros
- Jon Kareaga ingurumen aktibista eta Bask markaren sortzaileetako bat
- Moderatzailea: Gorka Zabaleta kazetaria

